TABAKALERA

www.tabakalera.eu



26>28
**Abendua** Diciembre
**2013**

# AUZO PAISAIAK

**HIRU BEGIRADA, AUZOA ULERTZEKO/SORTZEKO/BIZITZEKO HIRU MODU**
TRES MIRADAS, TRES MODOS DE VIVIR/COMPRENDER/CREAR COMUNIDAD

Lantegiak
Talleres

## SOINU PAISAIAK

**Familiei zuzendua (6-12 urteko umeekin)**
Dirigido a familias con niños/as 6 y 12 años

## PAISAIA FEMINISTAK

**Emakumeentzat eta feminismoaren inguruan lan egin nahi duten pertsonentzat**
Para mujeres y personas interesadas en trabajar desde el feminismo

## PAISAIA HEZITZAILEAK

**Hezitzaileentzako formakuntza (begirale, guraso, irakasle, etab.)**
Formación para educadores/as, madres, padres, monitores/as, etc.

**Izenematea doan/**
**Inscripción gratuita**
www.tabakalera.eu
hezkuntza@tabakalera.eu
943 011 311

EgiaMapa. Tabakalera.



Donostia
San Sebastián

HIRU BEGIRADA, AUZOA ULERTZEKO/
SORTZEKO/ BIZITZEKO HIRU MODU
TRES MIRADAS, TRES MODOS DE VIVIR/
COMPRENDER/CREAR COMUNIDAD

AUZO
PAISAIAK

26>28
Abendua Diciembre
2013

www.tabakalera.eu

TABAKALERA



TABAKALERA

www.tabakalera.eu

# HEMEN GAUDE
# ESTAMOS AQUÍ

***DUQUE DE MANDAS, 32** (Atotxako etxabeak / Bajos de Atotxa)
OBRA BUKATU BITARTEAN, HEMEN AURKITUKO GAITUZU
MIENTRAS ESTAMOS EN OBRAS NOS ENCONTRARÁS AQUÍ

**Lantegiak**/Talleres

# AUZO PAISAIAK

## Hiru begirada, auzoa ulertzeko/ sortzeko/bizitzeko hiru modu
## Tres miradas, tres modos de vivir/ comprender/crear comunidad

**26>28**
**Abendua** Diciembre
**2013**

**Ordutegia**/Horario
26, 27 > 16:30 - 19:30
28 > 10:00 - 14:00

**Non**/Dónde
Tabakalera - Sukaldea
(Atotxa dorreko etxabeak /
bajos de la torre de Atotxa)

**Izenematea doan/**
**Inscripción gratuita**
www.tabakalera.eu
hezkuntza@tabakalera.eu
943 011 311

TABAKALERA

**Tabakalera Hezkuntza**, Tabakalerak hiriko hainbat erakunde, elkarte, talde eta pertsonekin batera martxan jarri duen bitartekaritza proiektua da. Urriaz geroztik **Ekosistema** proiektuan ari gara lanean Egia auzoan. Bertako eragileekin lankidetza eta gerturatze prozesu bat abian jarri dugu Tabakaleraren prozesua bera auzoaren beharretara gehiago hurbildu asmoz.

Lehen kontaktu honen ondorio da hemen aurkezten dugun **Auzo Paisaiak** egitasmoa, espazio publikoaz eta komunak diren eremuez gogoeta egiteko asmoz sortutako proiektua. Ekimen hau datorren urtean sakondu nahiko genukeen lan ildo baten lehen pausua izango da.

**Auzo Paisaiak** hiru lantegiz egongo da osatua. Hirurak aldi berean egingo dira eta abiapuntu bera izango dute: Egia auzoaren inguruko auzolana. Abenduaren 26 eta 27an talde bakoitzak bere kasa lan egingo du eta 28an taldeak batera tuko dira egindakoa partekatzeko.

Lantegien ostean, bertatik ateratako emaitzak fanzine moduko argitalpen batean kaleratzea da asmoa.

**Tabakalera Hezkuntza** es el proyecto de mediación que Tabakalera está desarrollando junto con diversas entidades, grupos y personas de la ciudad. Desde octubre se está llevando a cabo el proyecto **Ekosistema**, en relación al barrio de Egia. Se pretende establecer un diálogo y contacto cercano con entidades y personas del barrio para intentar acercar más el proceso propio de Tabakalera a necesidades de estas.

De esta primera toma de contacto nace la propuesta **Auzo paisaiak**, que trabaja sobre el espacio público y los diversos territorios de lo común en Egia. Esta actividad pretende ser un punto de partida de un trabajo a largo plazo que se desarrollará a lo largo de 2014.

**Auzo paisaiak** estará compuesto por tres talleres que se realizarán de forma paralela con la intención de confluir en un mismo lugar y con una misma premisa de partida: el trabajo colectivo sobre el barrio de Egia. El 26 y 27 cada grupo trabajará por separado y el sábado 28 será una sesión de puesta en común.

Una vez transcurridos los talleres, se publicarán los resultados de los mismos en una publicación tipo fanzine.

## SOINU PAISAIAK

**Familiei zuzendua**
**(6-12 urteko umeekin)**
**Dirigido a familias con niños/as entre 6 y 12 años**
Euskaraz/En euskera

Familian auzoa entzun eta grabaketak eta elkarrizketak egingo ditugu. Soinu mapak sortu eta erabakitako espazioetan soinu interbentzioak egingo ditugu.

Lehen bi egunetan, ariketa errazen bitartez geure auzoaz dugun soinu pertzepzioa ezagutuko dugu, talde-mapak sortuko ditugu eta ohiko lekuetatik beste begirada eta entzuteko beste jarrera batekin igaroko gara. Azken egunean, emaitzak aurkeztu eta beste taldeekin partekatuko dugu egindako lana.

Lantegi hau Audiolab elkartearen batera egingo dugu (www.audio-lab.org).

En familia escucharemos el barrio, haremos grabaciones, entrevistas, mapas sonoros e intervenciones sobre los espacios de Egia.

Los dos primeros días, a partir de dinámicas sencillas, trabajaremos para conocer la percepción sonora que tenemos de nuestro barrio, crearemos nuestros mapas colectivos y recorreremos lugares que siempre transitamos con otra mirada y otros oídos. El último día lo dedicaremos a la puesta en común de resultados, contrastaremos los paisajes y reflexiones que se hayan producido en cada grupo.

El taller se realizará con la colaboración de la asociación Audiolab (www.audio-lab.org).


Rethink! Maushaus. Tabakalera.

## PAISAIA FEMINISTAK

**Emakumeei eta feminismoaren inguruan lan egin nahi duten pertsonei zuzendua**
**Para mujeres y personas interesadas en trabajar desde el feminismo**
Gaztelaniaz/En castellano

Nola bizi, pentsatu, ikusi eta eraikitzen dugu Egia emakumeok? Ze ekarpen egin dugu? Begirada feminista batetik historiaren eta istorioen ekoizpena, bilaketa eta hausnarketa burutuko dugu lantegi honetan. Helburua ikuspegi feminista batetik gogoeta egin, eta istorioak jaso eta sortzea izango da, orain arte ikusgarritasun urria izan duten praktika kulturalak eta komunikazioari lotutakoak garatzea. Lehen bi egunetan gogoetari, memoriari eta kontakizunei atea zabalduko diegu. Azken egunean, emaitzak aurkeztu eta beste taldeekin partekatuko dugu egindako lana.

Lantegi hau La Fundició elkartearen batera egingo dugu (www.lafundicio.net)

¿Cómo vemos, vivimos, pensamos, producimos Egia las mujeres? ¿Cómo podemos recoger las aportaciones de las mujeres al barrio, a lo común desde nosotras? El objetivo del taller será realizar una reflexión, recogida y producción de historias desde una mirada feminista y desarrollar prácticas culturales y comunicativas más invisibilizadas hasta ahora. Los dos primeros días abriremos un espacio para la reflexión, la memoria, los relatos, etc. El último día lo dedicaremos a la puesta en común de resultados, contrastaremos los paisajes y reflexiones que se hayan producido en cada grupo.

El taller se realizará con la colaboración de la asociación La Fundició (www.lafundicio.net)


"Egiatik" Tabakalera.


Cigarreras saliendo de Tabakalera (Kutxateka)

## PAISAIA HEZITZAILEAK

**Hezitzaileentzako formakuntza**
**(begirale, guraso, irakasle, etab.)**
**Formación para educadores/as, madres, padres, monitores/as, etc.**
Gaztelaniaz/En castellano

Nola garatu hezkuntza prozesuak espazio publikoan? Ze espazio daude Egian horretarako? Nola eralda ditzakegu espazio horiek? Nolako harremanak garatu ditzakegu espazio horietan? Lantegi honen bitartez pedagogia kolektiboei eta espazioaren inguruko politikei buruzko gogoeta sustatu nahi dugu. Hiriak eta espazio publikoak hezkuntzarako baliabide gisa eskaintzen dizkiguten aukerak aztertzea da asmoa.
Lehen bi saioetan proiektuak ezagutu, arazo zein beharrak identifikatu eta etorkizunera begira Egiako paisaia aldatuko luketen ekimen posibleen gainean lan egingo dugu. Azken egunean, emaitzak aurkeztu eta beste taldeekin partekatuko dugu egindako lana.

Lantegi hau La Fundició elkartearen batera egingo dugu (www.lafundicio.net)

¿Cómo podemos plantear procesos educativos colectivos en el espacio público?¿Con qué espacios contamos en Egia? ¿Cómo podemos transformarlos? ¿Qué tipo de relaciones podemos generar en ellos?

En este taller queremos crear un espacio de reflexión sobre las pedagogías colectivas y las políticas espaciales intentando pensar las nuevas posibilidades de trabajo educativo y social que nos ofrece la ciudad y el espacio público como recurso educativo.

Las dos primeras sesiones servirán para conocer proyectos, detectar problemáticas y necesidades y trabajar en la producción de posibles procesos futuros que transformen el paisaje de Egia.
El último día lo dedicaremos a la puesta en común de resultados, contrastaremos los paisajes y reflexiones que se hayan producido en cada grupo.

El taller se realizará con la colaboración de la asociación La Fundició (www.lafundicio.net)


"Entzumena eta paisaia" Audiolab.



TABAKALERA